# «ALGARA DANTZA TALDEA»
# *ASOTTHALOM 2006 (HUNGRIA)*

Todos soñamos, todos nos ilusionamos, pero lo mejor es cuando eso que tanto anhelas se convierte en realidad. Es lo que nos ha ocurrido en Algara Dantza Taldea, en septiembre de 2005 surge la posibilidad de hacer nuestro primer viaje a otro país donde mostrar nuestro folklore y nuestra cultura. Hungría es el primer país donde Algara va a poder disfrutar con otras culturas de otros países. A pesar de todas los contras que encontramos a priori, y de la poca ayuda recibida por parte de las instituciones alavesas, decidimos embarcarnos en una nueva y arriesgada aventura.

Con mucha ilusión comenzamos con la búsqueda del vuelo, y aunque tenemos varias posibilidades finalmente decidimos que la mejor es viajar a Barcelona en autobús y desde la ciudad condal a Budapest en avión. En esos momentos solo nos quedaba movernos para conseguir dinero, y realizamos varias actividades como, hacer boletos para el sorteo de una cesta de navidad, vino caliente, arcos, actuaciones...



*Algara dantza taldea después de la apertura del Festival en la plaza* San Stephan *de Asotthalom.*

Mucho trabajo, mucha ilusión, pero todo merece la pena, el 15 de Agosto de 2006 nos reunimos en la estación de autobuses a primera hora de la mañana, a eso de las 5 de la madrugada, y a pesar de la hora toda la gente de Algara estaba en la parada con la maleta cargada de emoción, intriga, nervios, y muchas ganas de disfrutar de esta aventura.

El viaje a Barcelona en el autobús lo realizamos sin ningún contratiempo y a la llegada al aeropuerto de Barcelona comienza el gusanillo. Facturamos tanto el equipaje como el material sin problemas, así que solo nos quedaba esperar a que llegase la hora de embarque y relajarnos en el avión.

A la llegada a Budapest, la guía del Festival esta esperándonos, Amarilla es su nombre, un nombre algo peculiar para nosotros. Nos recibe con un autobús que nos llevara al destino, Asotthalom, un pueblecito en la provincia de Csograd.

Denok izan ditugu ametsak, bai orain eta bai iraganean, baina, ba al dago amets hauek egiazko bihurtzea baino gauza hoberik? Ba hauxe izan da hain zuzen ere Algara Dantza Taldeko partaideoi gertatu zaiguna. 2005-ko irailean, lehendabiziko aldiz atzerriko lurralde batetara juteko eskaintza jaso genuen, eta hasiera bateko oztopo denak eta Arabako erakundeen laguntza eskasari muzin eginez, benetan mereziko zuen abentura berri bati ekitea erabaki genuen. Bertan izango du algarak dantza talde atzerritarrekin folklorea elkarbanatzeko lehenengo aukera.

Halaxe hasi ginen, lehenik eta behin lurralde urrun hartara eramango gintuen hegazkin baten bila. Aukerak aztertu eta gero, Bartzelona-Budapest hegaldia hautatu genuen, eta Bartzelonarako bidaia autobusez egitea iruditu zitzaigun aproposena.
Baina nola ez, halako bidai bateko protagonista garrantzitsuenetako bat dirua zela konturatu eta gero, hamaika trikimailu asmatu behar izan genituen gure poltsikoak pixka bat puztutzeko: boletoak, ardo beroa, arkuak, ekitaldiak…

Lan asko, ilusio handia eta merezi izan zuen. 2006ko abuztuaren 15ean, goizeko 5ak aldera, Gasteizeko autobus geltokian bildu ginen guztiok maletak lilura, urduritasun, eta ezinegonez beterik genituela. Baina batez ere, abentura honetaz gozatzeko prest geunden.

Bartzelonarako bidaia inolako arazorik gabe egin genuen eta bertako aireportura heltzean maletak eta material guztia fakturatu genuen inongo atzerapenik gabe. Hortaz, hegazkineko 3 ordu iraungo zituen atsedenaldia besterik ez genuen zain.

Budapestera heltzean, gure festibaleko gidaria izango zena genuen zain. Amarilla zen bere izena, nahiko izan xelebrea guretzako egia esan. Bertan autobus batera igo, eta gure egonaldia egingo genuen herrira eraman gintuzten, Asotthalom-era, Csograd-eko probintzian dagoen 2000 biztanleko herritxora.

El primer día de la aventura no da para mucho más, llegada al albergue, descargar todo el material, y repartir las habitaciones. En el albergue que nos ha tocado están otros 5 países, Holanda, Alemania, Italia, Francia y Republica checa. A unos pocos kilómetros de nosotros están alojados Bulgaria, Letonia, Estonia y Rusia, el pueblo donde están se llama Pusztamerges.

La apertura del Festival se lleva acabo en Asotthalom, en la plaza principal presidida por San Stephan. Cada grupo deleita al respetable durante 10 minutos con sus mejores bailes y diferentes músicas. Empezamos a apreciar las diferentes culturas, costumbres, instrumentos, etc…el colorido de los trajes rusos contrasta con la sobriedad de Holanda, y la alegría de Estonia con la seriedad de Alemania. La animada música de los búlgaros, la destreza en la ejecución de pasos... Algara dantza taldea comienza su actuación con Agintariena, dantza con la cual muestra el ondear de nuestra ikurriña, y finaliza con una alegre kalejira entre los aplausos al son de los txistus del público. Todo un espectáculo de luz, color y sonido, y como colofón a una jornada emocionante una puesta en escena de los húngaros, que con la batuta de la profesora de danza consigue que todos los asistentes bailemos una polka húngara. Es difícil describir con palabras las sensaciones y emociones vividas en la plaza de Asotthalom.

La aventura continua, al día siguiente nos llevan de excursión a la capital, Szeged, con alrededor de 200.000 habitantes llego a ser capital de Hungría. Hoy, es una ciudad moderna, con una catedral impresionante, desde la que se divisa el río Tisza y los bellos puentes de la ciudad. Realizamos una excursión en barco por el río y a nuestro paso surgen casitas idílicas y gente tomando el sol en las orillas. Vuelta al albergue, comida y rápido a cambiarnos de ropa, esa tarde nos toca ir de visita al pueblo donde se alojan el resto de países. Una nueva actuación en la plaza de Pusztamerges. Hoy nos toca compartir escenario con parte de los países, Rusia, Republica Checa, Francia, y Holanda. Todo lo que nos rodea es vegetación, por lo que el calor en ocasiones se vuelve insoportable así como los mosquitos para los que somos carne fresca.

Eguneko gainontzeko denbora albergera heltzen, gelak banatzen eta materiala antolatzen xahutu genuen. Lau pertsonako gelak ziren, bakoitza bere komunarekin. Gure albergea beste bost luerraldeetako dantza taldeekin banatzea tokatu zitzaigun: Holanda, Alemania, Txekiar Errepublika, Italia eta Frantziarekin. Gainontzeko partaideek, Bulgaria, Letonia, Lituania eta Errusiak, kilometro gutxira zegoen herritxo baten egingo zuten lo, Pusztamerges-en.

Festibala, Asotthalom-eko plaza nagusian hasi zen, eta talde bakoitzak 10 minutuz euren dantza eta musika esanguratsuenekin alaitu zuten ekitaldia. Eta hantxe hasi ginen kultura ezberdinak, arrazak, ohiturak eta atzerriko trajeen koloreen bizitasuna antzematen, Bulgariarren musika azkarra, dantza-urratsen trebetasuna…ikusgarria benetan. Algara Dantza Taldeak ikurriña erakusten duen Agintariena izeneko dantzarekin hasi zuen bere dantzaldia, eta txistulariek jotako kalejira alai batekin eman zion amaiera. Oso ekitaldi polita izan zen. Eta bukaera hunkigarria eman nahi izan baliote bezala, Hungaria bertako dantza irakasleak, plazan geunden dantzari guztiok plazara atera gintuen. Bertan izan ginen denak nahastuta eta eskutik helduta, polka hungariarrak dantzatzen, dantzaren bidez elkar ulertzen, hitzik gabeko komunikazio baten bitartez.

Gure abenturak aurrera jarraitu zuen, eta inguru haietako hiriburura eraman gintuzten, Szeged-era. 200.000 biztanle inguruko eta garai baten Hungariako hiriburu izandako hirira. Gaur egun hiri modernoa da, katedral zoragarri batekin, zeinaren dorretik Tisza izeneko ibaia eta berau zeharkatzen duten zubiak ikus daitezkeen. Ibai honetan zehar ere eskursio bat egin genuen itsasontziz eta ibai ertzeko etxebizitza pintoreskoak ikusteko parada izan genuen. Ostean, berriz ere buelta albergera, beste lurraldeetako dantzarien albergea zegoen herrian dantzatu behar baikenuen, Pusztameges-en. Inguruko dena landaretza berde eta zabal bat besterik ez zen eta ondorioz noizean behin gertatzen ziren bero kiskalgarriko tenperatura igoerek, eta bertako eltxo madarikatuek jasangaitza gin zuten behin baino gehiagotan egonaldia.



*Antes de la actuación en la localidad de Pusztamerges Algara dantza taldea quiso hacerse esta simpática fotografia.*

Las sensaciones de felicidad siguen aflorando, nos animamos a poner la música de Sorotan Bele para finalizar nuestra actuación con la que hacemos bailar al respetable, es increíble ver como a través de la danza hacemos que las fronteras no existan, el diferente idioma, las diferentes culturas se vuelven una.

Los días van avanzando poco a poco, y nos toca visita al Balneario de Morahalom, es un complejo de piscinas, toboganes, saunas, aguas termales... un día muy divertido, algo diferente que es culminado con una primera actuación en las propias instalaciones.
Volvemos a compartir escenario con todos los países. Ese mismo día, a la noche regreso a la capital, Szeged, pero esta vez para bailar. Son fiestas y por tanto acudimos al recinto ferial, donde encontramos una especia de romería similar a la de las campas de Armentia el día de San Prudencio, y como no, con un nuevo escenario que nos acoge. Es una de las mejores actuaciones del viaje, todos salimos con un sabor de boca genial. Cuando estábamos cambiándonos para irnos a nuestro albergue se acerco un chico y nos dice“Zorionak”. Nuestras caras eran de perplejidad, era un chico de Bilbao que estaba casado con una Húngara. Nos hizo una ilusión tremenda, y a el no digamos.

El viaje seguía su curso, y un nuevo día nos espera, esta vez nos desplazábamos hasta Öcsöd, algo mas alejado que el resto de pueblos que habíamos visitado hasta entonces. Realizamos un desfile por todos los rincones para que los lugareños sepan de la llegada del Festival. Tras finalizar el desfile el alcalde del pueblo hace entrega de varios obsequios a los diferentes grupos del Festival. Una nueva actuación y una comida popular con el resto de los países. Kunszentmárton, es nuestro destino a la tarde, donde compartimos escenario con Francia y Bulgaria. Lo curioso llego al finalizar nuestra actuación, ya que una vez finalizado comienzan los combates de kickboxing. Sorprendente el tirón que el kickboxing tienen entre los húngaros.



*Las neskas de Algara dantza taldea bailan Kontrapas de Uruñuela en la actuación realizada en Morahalom.*

Hala eta guztiz ere, disfrutatzeko gogoz beterik geunden beti ere, eta Sorotan Bele-ren polka jartzera animatu ginen lurralde guztietako jendea dantzan jartzeko asmoz, modu batean, dantzaren bidez, hizkuntza eta kultura ezberdinak bakar batean bilduz.

Egunak aurrera zihoazen eta Morahalom-eko balneariora joan ginen egun pasa. Goiz oso entretenigarri eta dibertigarria igaro genuen bertako piztina, txirrista, sauna eta ur termaletan. Egun ezberdina izan zen guztiz, eta berriz ere, piztinetan bertan zegoen eszenatoki baten dantzaldia egin behar izan genuen beste dantza talde guztiekin batera, publikotzat ur epeletan bainujantzia soilik soinean zeraman jendea genuelarik. Gauean, Szeged-era itzuli ginen bigarrenez, baina oraingoan ez gentozen turismo egitera, dantzatzera baizik. Bertako jaiak ziren eta Armentiako kanpetan izaten dugun erromeriaren antzeko festa batekin topatu ginen, eta nola ez, erdi-erdian, gure zain zegoen eszenatoki bat ere bazegoen. Oso gustura atera ginen denok bertatik, eta arropaz aldatzen ari ginela, gizon bat gerturatu zen guregana eta “Zorionak” esan zigun. Gu, harrituta geratu ginen euskal hitz hori entzutean eta berarekin hitz egiten hasi ginen. Berak azaldu zigunaren arabera, emakume hungariar batekin ezkonduta zegoen bilbotar bat omen zen. Euskaldunak munduko bazter guztietan aurki daitezke dudarik gabe.

Hurrengo egunean, bisitatutako herri guztiak baino urrutixeago zegoen Öscöd izeneko herritxora abiatu ginen, eta bertan desfile bat egin genuen bertakoek gure etorreraz ohar zitezen. Desfilea amaitzean, bertako alkateak dantza talde ezberdinoi zuzendutako opari banaketa bat egin zuen. Ekitaldi berri bat eta bertako bazkari bat izan genuen gainontzeko dantzariekin. Egun bereko arratsaldean Kunszentmárton-en egin genuen ekitaldia Frantzia eta Bulgariarekin batera eta dantzen jarraian kickboxing txapelketa bat izan zen.

El viaje llega a sus últimos coletazos, pero todavía nos quedan fuerzas para bailar en Szatymaz. También hacemos un breve desfile por el pueblo antes de la actuación, donde Algara con sus kalejiras hace disfrutar a sus ciudadanos.

A la tarde Kistelek, donde una vez finalizada la actuación podemos disfrutar de un viaje en los columpios giratorios gigantes que se dan cita en la feria. Vamos todo un espectáculo ver a 30 dantzaris con sus trajes típicos volando por las alturas.

Pero todavía nos queda una ultima puesta en escena, la clausura del Festival, que esta vez nos permite estar mas relajados puesto que se celebra en el pueblo que nos acoge. Por la mañana nos llevan a la capital de nuevo para poder realizar unas compras, esa postal de recuerdo, un poquito de vino húngaro que tiene buena fama, en fin todo aquello que nos haga tener un recuerdo intacto del paso por este país.

Sobre las 20,00 de la tarde noche, comienza la clausura del festival. Esta vez nos llevan al polideportivo del pueblo, y el ambiente que se respira es fantástico. Todos los países realizan una pequeña exhibición de todo aquello que hemos ido mostrando a lo largo de una semana por los diferentes rincones de la provincia. Tras la finalización de cada grupo se hace el intercambio de regalos entre los diferentes grupos. Algara dantza taldea es la encargada de finalizar el festival, y termina su actuación con Aniztasun (diversidad en euskera), que mejor dantza para mostrar lo que se ha vivido en el Festival. El público se vuelca con nuestra coreografía de música irlandesa y pasos euskaldunes, hasta hacernos sentir que estábamos bailando en nuestra propia casa. Para finalizar se organiza una especie de dantza plazan, donde acabamos bailando todos juntos. Por un lado los húngaros vuelven a enseñarnos varias polkas, las niñas Rusas también quieren deleitarnos con su danza, y como no, Algara dantza taldea no se podía quedar atrás, por lo que compartimos la polka de Sorotan Bele y Txulalai con todos los grupos participantes, así como el público que quiso apuntarse a la fiesta.


*En la localidad Hungara de Kistelek Algara dantza taldea finalizo su actuación con Aniztasun.*

Dexente harritu gintuen gauzetako bat izan zen hau; argi geratu baitzen, hungariarren artean kickboxing-ak dantzak baino erakargarritasun nabariagoa duela. Ekitaldi bakoitzera gerturatutako jende kopuruaren konparaketa besterik ez zen aztertu behar.

Bidaiak eta nekeak aurrera jarraitu bazuten ere, Szatymaz-en dantzatzeko indarra izan genuen eta baita Kistelek-en dantzatzeko ere, non kolunpio birakari batzuetan ibiltzeko ausardia bildu genuen. Ikuskizun paregabea benetan, dantzariz jantzitako 30 lagun airean zabuka ikustea.

Aipatutako ekitaldi guzti hauek Csongrad izeneko probintziako herritxoetan burutu ziren eta denak zituzten landaretza, beroa eta eltxoak amankomunean.

Dena den, oraindik azken dantzaldia egitea falta zitzaigun, baina oraingoan ez genuen urduritasunik, geure herritxo txikitxoan dantzatuko baikenuen, Asotthalom-en. Goiza Szeged-en erosketak egiten igaro eta gero, arratsalde euritsua zela ikusita, herriko polideportiboa ahalbidetu zuten dantzatzeko. Giro ezin hobea izan genuen bertan. Talde bakoitzak aste guztian zehar Hungariako zoko-mokoetan dantzatutako errepresentazioen laburpen txiki bat eskaini zuen, geuk barne. Talde bakoitzaren antzezlanaren ostean oparien elkartrukatzea egin genuen talde ezberdinen artean. Algara Dantza Taldeak eman zion amaiera ekitaldiari Aniztasun dantzarekin. Publikoa asko animatu egin zen gure musika irlandesa eta dantza-urrats euskaldunak zituen koreografiarekin. Eta amaitzeko, beste modu baten izan ezin zitekeenez, dantza-plaza antzeko batekin bukatu genuen berriz ere. Alde batetik hungariarrek euren polkak erakutsi zizkiguten, errusiarrak ere hantxe izan genituen euren mugimenduak erakutsi nahian, eta nola ez, geuk ere geure aztarna utzi behar genuenez, Sorotan Bele eta Txulalai bezalako dantzak irakasten ibili ginen.

El viaje toca a su fin, ha llegado el 22 de agosto y tenemos que darnos otro impresionante madrugon para cerrar las maletas llenas de recuerdos, vivencias y realizar una pequeña visita a Budapest.

Realizamos un pequeño recorrido en autobús por las zonas mas destacadas de la capital de Hungría. La plaza de los Héroes, el Parlamento, el Puente de las cadenas....en fin, como toda aventura esta le toca llegar al final.

Ha sido una experiencia maravillosa, que esperamos poder repetir en un breve espacio de tiempo. El año que viene Algara dantza taldea puede cruzar el charco y visitar Argentina, otro gran salto para este grupo de dantzas.

Bidaia bere amaierara iritsi zen abuztuaren 22an, eta Budapest-en azken bisita motz eta azkar bat egiteko oso goiz esnatu, maletak bizi izandako oroitzapenez beterik itxi eta abiatu ginen.

Hiriburu handiko leku garrantzitsuenak autobusez bisitatu genituen: Heroien enparantza, Parlamentua, Kateen zubia…

Zoritxarrez gure abenturatxoa amaitua zegoen, eta denbora gutxiren buruan antzeko bidaien bat errepikatzeko aukera izatea gustatuko litzaiguke. Datorren urtean esaterako, Algara Dantza Taldeak Argentinara juteko aukera izan dezake, sekulako aurrerapausoa izango litzatekeena dantza talde honentzako.

## ESKERRIK ASKO GUZTIOI!



*Algara dantza taldea y varios componentes de Ogonek (Rusia), Dardedze (Letonia) y Mladinka (R. Checa) se fotografian delante de la estatua de* San Stephan.



*Dantzaris de Algara posan con componentes del grupo Tantsusarvikud de Estonia.*



*Antes de su vuelta a Gasteiz Algara realizó un tour turístico por Budapest. En esta foto podemos apreciar a los componentes de Algara en la Plaza de los Heroes.*